Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasuna
Igualdad

# Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala –
## Consejo Sectorial para la Igualdad

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Eguna, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2017ko maiatzaren 5a**/ 5 de mayo de 2016<br>**Urgull Aretoa, Udaletxea** / Sala Urgull, Edificio Consistorial<br>**18:00** / A las 18:00 horas |
| Amaiera-ordua<br>Hora de finalización | **20:15 /** A las 20:15 horas |

## GAI-ZERRRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

1. **Aurreko aktaren onarpena**
2. **III Berdintasun Planaren jarraipen txostenaren aurkezpena**
3. **2017ko ekintza plana**
4. **Emakumeen Etxetik eginiko salaketaren ondorioa 016 deien inguruan**
5. **Besterik**

1. Aprobación del acta anterior
2. Presentación del informa de seguimiento del III. Plan de Igualdad
3. Plan de Accion 2017
4. Consecuencias de la denuncia sobre rastro 016, promovida desde la Casa de las Mujeres.
5. Varios

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| KONTSEILUKO LEHENDAKARIA<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Berdintasun Kontseiluko lehendakariordea**<br>vicepresidenta del Consejo |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | **1. EH BILDU**<br>**2. IRABAZI - GANAR DONOSTIA**<br>**3. EAJ-PNV**<br>1.<br>2.<br>3.<br>4. |
| **HERRITARREN ELKARTEAK ETA, BERDINTASUN ARLOAN, GIZARTEAN GARRANTZI BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK**<br>ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD | **1.- ARRATS Elkartea / Asociación ARRATS**<br>**2.-ASADE Elkartea / Asociación ASADE**<br>**3.- ASADE Sindikatua / Sindicato ASADE**<br>**4.- Emakume Bananduen Elkartea / Asociación de mujeres separadas**<br>**5.- ERNE**<br>**6.- ELKARTU (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioa / Federación de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa)**<br>**7.- Haurralde Fundazioa**<br>**8.- GEHITU** |
| **Norbanakoak**<br>Mujeres a titulo individual | |
| **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE EDO EZ DIRA ETORRI**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON | **1.- EMAKIN**<br>**2.-Plazandreok**<br>**3.- Dandai**<br>**4.-INTXAURRONDO BERRI**<br>**5.-Donostiako Berritzegunea**<br>**6.- EMAKUMEAK ETA HIRIA FOROA / FORO MUJERES Y CIUDAD**<br>**7.- LAB**<br>**8.- PP**<br>**9.-PSE – EE** |
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL | **Berdintasun Agentea / Agente de Igualdad**<br><br>**Atalaren burua / Jefa de Sección** |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialeko hamalau kide eta bi udal teknikari, idazkaritza tekniko lanetan.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = **14**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **0**<br><br>14 personas integrantes del Consejo Sectorial para la Igualdad y 2 representantes del cuerpo técnico municipal como secretaría técnica |
| KONTSEILUKO IDAZKARITZA:<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO | **Berdintasun Bulegoa** - Negociado de Igualdad<br>Okendo 9 / 943 48 34 64 / berdintasuna@donostia.eus |

# SAIOAREN BILAKAERA:

## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

**1. Aurreko Kontseiluaren akta onartzea**

Lehendakariordeak azaldu duenez, lehendakaria (Berdintasuneko zinegotzia) ezin izan da etorri, Madrilen delako, bilkura batean. Batzorde iraunkorrean kontseilurako datari eustea erabaki zutenez, lehendakariordeak bereganatu ditu lehendakariaren eginkizunak.

2017ko otsailaren 16ko akta onartu dute.

**2. Aurkeztea III. Berdintasun Planaren jakitun egoteko txostena**

Txostenak banatu dituzte. Datozen egunetan, mezu elektroniko batez bidaliko dituzte. 2016an, abian jarri dute planaren segimendua egiteko aplikazio informatikoa, haren bidez, segimendua eta ebaluazioa errazagoak baitira. Ekintzarik aipagarrienak aipatu ditu Berdintasuneko teknikariak, txosteneko 11. orrian laburtuta daudela.

- Genero ikuspegia aurrekontuetan txertatzea eta berdintasuna jorratzen duten atalak haien aurrekontuen bidez lantzen ari diren inplikazioa.
- Genero ikuspegia Hiri Behatokiaren proiektuan txertatzea.
- Gune Kritikoen Taldearekin eta taldean lan egitea.
- Ikusgarriago egitea emakume kirolari profesionalak.
- Emakumeak berreskuratzea Donostiako historian. Honako hauek lagun eginiko lana: Donostipedia, Musika eta Dantza Eskola.
- Eragitea genero joerarik gabeko lan orientabideari.

On-ontzat jo dute politikarien eta zuzendarien batzordeak eta III. Planaren Jarraipen Batzordeak berdintasun Atalaren koordinazioa eta bultzada. Generako ikuspegia jorratzeko prestakuntzarekin eta tresnak garatzen jarraitzeko eskea egin dute.

Haurralderen ordezkariak galdetu du neurrien zenbakizko kodearen esanguraz. Berdintasuneko teknikariak

**1. Aprobación del acta del Consejo anterior**

La vicepresidenta explica la ausencia de la presidenta, (concejala de igualdad) que no ha podido acudir, por encontrarse en una reunión en Madrid. En la comisión permanente se decidió mantener la fecha establecida para el Consejo, por lo que la vicepresidenta asume las funciones de la presidenta.

Se aprueba el Acta del 16 de febrero de 2017

**2.Presentación del informe de seguimiento del III.Plan de Igualdad**

Se reparten los informes, que se enviarán en los próximos días por e-mail. En 2016 se ha puesto en marcha el aplicativo informático para hacer seguimiento del Plan, con lo que se facilita el sistema de seguimiento y evaluación. La técnica de igualdad señala las acciones más destacables, las cuales se resumen en la página numero 11 del informe.

- La incorporación de la perspectiva de género a los presupuestos, y la implicación que están desarrollando los departamentos que trabajan igualdad con su presupuesto.
- La integración de la P.G. en el proyecto del Observatorio de la Ciudad.
- El trabajo con y en el Grupo de Puntos Críticos.
- La visibilización de las mujeres profesionales del deporte.
- La recuperación de las mujeres a la historia de la ciudad. Trabajo realizado con: Donostipedia, Musika eta Dantza Eskola.
- Impulso a la orientación laboral sin sesgo de genero.

La Comisión Politico-Directiva y la Comisión Tecnica de seguimiento del III. Plan valoran muy positivamente la coordinación y el impulso que da el Dpto. de Igualdad. Solicitan seguir con formacion e implementación de herramientas de Mainstreaming.

La representante de Haurralde pregunta por el significado de la codificación numérica de las

adierazi duenez, lerroa edo ardatza aipatzen du lehen zenbakiak; bigarrenak helburu espezifikoa eta hirugarrenak helburu zehatza. Eta neurri bakoitzean, egin beharreko zehatzak zerrendatzen dira. Txostenari buruzko zenbait zalantza argitu dituzte, esaterako, 2014ko planean agertzen diren ekonomiazko datuak behin-behinekoak zirela, urtean-urtean atal bakoitzarekin negoziatu beharrekoak direlako, urteko aurrekontuaren arabera.

Arratsen ordezkariak —Berdintasun Kontseiluaren ordezkari da Gizarte Kontseiluan— galdetu du ea Berdintasun Atalak parte hartu ote duen Plan estrategikoan, genero ikuspegia ez baitu jasotzen, ezta diagnosian bertan ere, zeinetan datuak generoaren arabera sailkatu gabe dauden. Haurralderen ordezkariak azaldu duenez, tamalgarriak dira Plan Estrategikoaren edukiak, eta, adibide moduan, “seme-alabak izatea” deritzon atala aipatu du, nabarmentzeaz gain ez dagoela immigrazioaren inguruko atal bat bera ere, hortaz, ondorioztatu beharrean dago Kultur Aniztasunak ez duela parte hartu.

Berdintasuneko teknikariak erantzun duenez, Plan Estrategikoaren Bulegoarekin harremanetan dauden arren, ez dute esku hartu Plan Estrategikoaren Batzordean, horretan Gizarte Kontseiluko kideek esku hartzen baitute.

Elkarturen ordezkarietako batek aipatu duenez, Adegi, Añarbeko Urak, Kutxabank eta antzeko eragileak daude Gizarte Kontseiluan, eta Plan Estrategikoa aurrekoaren eguneratze bat da.

Lehendakariordeak proposatu du ataleko teknikariek planaren zirriborroa aztertzea, 30a arte alegazioak egin baitakizkioke. Eta txostena bidal diezaietela kontseiluko kideei, kontseiluak ondorioak, salaketa publikoa edo egoki deritzona bideratzeko.

Haurralderen ordezkariak nabarmendu duenez, gakoa da Gizarte Kontseiluko kide gehienak gizonezkoak izatea, inolako joera feministarik gabeak, Lankidetza Kontseiluan salatu bezala. Parekotasuna eta berdintasunarekin konprometitzea eskatu behar lizkiekete Plan Estrategikoa lantzen parte hartu

medidas. La técnica de igualdad responde que el primer número se refiere a la línea, el segundo al objetivo específico, y el tercero a la medida concreta. Y dentro de cada medida se desglosan las acciones concretas a realizar. Se aclaran algunas dudas sobre el informe, como que que los datos económicos que aparecen en el plan 2014 eran provisionales, ya que se tienen que negociar cada año con cada departamento en función del presupuesto anual.

La representante de Arrats, que es a su vez representante del Consejo de Igualdad en el Consejo Social pregunta si el departamento de igualdad ha participado en el Plan Estratégico, en el que la perspectiva de género está totalmente ausente, incluso en el diagnóstico, en el que ni siquiera están los datos desagregados. La representante de Haurralde comenta que los contenidos del plan estratégico son lamentables, y menciona el ejemplo de un apartado llamado "tener o no tener hijos", destacando también que no hay un sólo apartado sobre inmigración, por lo que entiende que tampoco ha participado el departamento de diversidad cultural.

La técnica de igualdad responde que, aunque tenemos interlocución con plan estratégico, no hemos participado en la comisión del Plan Estratégico, en la que participan integrantes del Consejo Social.

Una de las representantes de Elkartu menciona que en el Consejo Social hay agentes como Adegi, Aguas del Añarbe, Kutxabank... y que el Plan Estratégico es una actualización del plan anterior.

La vicepresidenta propone que las técnicas del departamento revisen el borrador de plan, ya que hay hasta el día 30 para hacer alegaciones. Y que pasen a las compañeras del consejo ese informe, para que el consejo eleve alegaciones, una denuncia pública, o lo que estime oportuno.

La representante de Haurralde destaca que la clave está en que es un Consejo Social compuesto mayoritariamente por hombres sin ninguna sensibilidad feminista, tal como se denunció en el Consejo de Cooperación. Habría que exigir paridad y compromiso con la igualdad de las personas que vayan a participar el la elaboración del Plan Estratégico. La vicepresidenta recuerda que la Ley de igualdad requiere paridad en las comisiones, etc., pero que no se cumple.

behar dutenei. Lehendakariordeak gogorarazi duenez, Berdintasun Legeak eskatzen duenaren arabera, parekide izan behar dute batzordeek eta enparauek, baina ez dute betetzen.

Elkarturen ordezkarietako batek dioenez, Udala ez dago konprometiturik, orokorrean, genero ikuspegia zeharreko lerroa izatearekin.

Erneren ordezkariak dioenez, Udaltzaingoa ez dago Berdintasun Planean. Berdintasun Atalaren ordezkarietako batek azaldu duenez, parte hartzen ari dira, ez batzorde teknikoan, bestelako bide batzuetatik baizik, eta, batez ere, prestakuntza dagite. Erneren ordezkariak zalantzan jartzen du Udaltzaingoko berdintasun prestakuntza, berari ez baitiote onartzen prestakuntza ikastarorik, eta berberak ordaindu behar du jasotzen duen prestakuntza.

Haurralderen ordezkariak dioenez. Plan Estrategiko osoa zuzendu beharra legoke, eta, haren ustez, kontseiluak ohar bat bidali behar lioke Gizarte Kontseiluko Batzorde Iraunkorrari, osoko zuzenketa bat aurkeztu nahi dutela adierazteko eta Plan Estrategiko hori nola prestatu duten azaltzera etortzea eskatzeko.

Arratsen ordezkariak aipatu du emakumeak guztiz ikusezin egoteaz kexu egitean erantzun ziotela egon bazirela inklusio planean. Planaren edukia turismoa, zerbitzuak eta eliteko kultura besterik ez delakoan dago.

Emakume batek, banako moduan parte hartuta, adierazi duenez. berdintasunerako gaitasuna duten gutxieneko pertsona kopuru bat eskatu beharra dago, eta Asade elkartearen ordezkariak adierazi duenez, ez da harritzekoa azken emaitza, kontuan izanez gero nork osatzen duen Gizarte Kontseilua.

Eztabaidaren ondoren erabaki dute Berdintasuneko zinegotziari galdetzea ea Plan Estrategikoa landu duen, bai eta Berdintasuneko teknikariek dokumentua ahalik eta azkarren aztertu eta analisia kontseiluko kide guztiei bidaltzea ere. Idazki bat egiteko eskaini du bere burua lehendakariordeak, Plan Estrategikokoei eskatzeko kontseilura azalpenak ematera etortzea.

Una de las representantes de Elkartu dice que el Ayuntamiento no está comprometido en general con la transversalidad de la perspectiva de género.

La representante de Erne dice que la guardia municipal no está en el plan de igualdad. Una de las representantes del departamento de igualdad responde que sí está participando, no en la comisión técnica, sino a través de otros cauces, y que fundamentalmente se hace formación. La representante de Erne pone en cuestión la formación de igualdad que se hace con la guardia municipal, ya que a ella no se le aprueban cursos de formación, teniéndose que costear ella misma la formación que recibe.

La representante de Haurralde dice que habría que enmendar todo el Plan Estratégico, y cree que el Consejo debería mandar una nota a la Comisión Permanente del Consejo social diciendo que se quiere presentar una enmienda a la totalidad, y pidiendo que vengan a dar explicaciones de cómo se ha gestado este plan estratégico.

La representante de Arrats refiere que cuando se quejó de que las mujeres estaban totalmente invisibilizadas, se le respondió que ya estaban en el plan de inclusión. El contenido del plan, a su juicio, se reduce a turismo, servicios y cultura de élite.

Una de las mujeres a título individual, opina que hay que exigir que haya un mínimo de personas capacitadas en igualdad, y la representante de asociación Asade afirma que no es sorprendente el resultado final, teniendo en cuenta quiénes componen el Consejo Social.

Tras el debate, se acuerda preguntar a la concejala de igualdad si ha trabajado el Plan Estratégico, y que las técnicas de igualdad hagan una revisión del documento lo antes posible y la envíen a todas las integrantes del Consejo. La vicepresidenta se ofrece a hacer un escrito para pedir al Plan Estratégico que venga al Consejo y den explicaciones.

La representante de EH Bildu dice que no conoce muy bien el Consejo Social, pero que es fundamental saber cuándo y dónde se va a aprobar.

Se acuerda que las técnicas de igualdad se lo

EH Bilduren ordezkariak dioenez, ez du ezagutzen oso ondo Gizarte Kontseilua, baina ezinbestekoa da jakitea noiz eta non onartuko duten.
Erabaki dutenaren arabera, Berdintasuneko teknikariek biharamunean adieraziko diote Berdintasuneko zinegotziari.

EH Bilduren ordezkariak galdera egin du 2016ko txostenaz, zehazki, ea zenbat ekintza gauzatu duten, zenbat ez eta zenbat ez omen diren egingo eta datorren urterako utziko. Berdintasuneko teknikariak erantzun duenez, txostenean neurriak jasota daude, nahiz eta ekintzak ezin dituzten banan bana jaso horrelako dokumentu batean, eta aplikazioan agertzen dira.

## 3. 2017ko ekintza plana

Segituan, 2017rako plan operatiboa aurkeztu dute. Banatu egin dute, eta, hurrengo egunetan, posta elektronikoz bidaliko. Neurririk interesgarrienak edo berrienak nabarmendu dituzte:

- Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea: Aurrekontu Atalarekiko lana hobetzen ari da, eta beharrezko deritzote aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzeari.

- Berdintasun ordenantza: Eredu bat aurkeztu zuen Irabazik Kontseiluan, eta departamentua Lege Idazkaritzarekin lantzen ari da. 2017rako arau proposamenen zerrendan jasota dago, hortaz, asmoa aurten onartuta uztea da. Eztabaidatxo bat sortu da, zioa dela jakitea ea udal Gobernua berdintasun ordenantzaren 2 eredu ari den erabiltzen edo Irabazik proposaturikoa besterik ez, zenbait zinegotzik hala ulertu bide dutelako batzordeetan. Atalak argitu duenez, eredu bakar bat baino ez da izan.

- Prestakuntzarekin jarraituko dute, bai orokorrean, bai atal bakoitzaren araberakoarekin, horien artean nabarmentzekoa dela udaltzainentzako prestakuntza, indarkeria matxista "inplizitua" hautemateko prestakuntza berezia. Lanerako eskuliburu bat prestatu dute, hautemateko hainbat adierazle jasota, kasuak gizarte

transmitirán al día siguiente a la concejala de igualdad.

La representante de EH Bildu pregunta sobre el informe del 2016, exactamente qué acciones se han cumplido, cuáles no, y cuáles se prevé cancelar, dejar para el año siguiente. La técnica de igualdad responde que en el informe se recogen las medidas, aunque cada una de las acciones es imposible recogerlas en un documento como éste, y están en el aplicativo.

## 3. Plan de Accion 2017

A continuación se presenta el plan operativo para 2017. Se reparte y se enviará en los próximos días el documento por e-mail, y se procede a destacar las medidas más interesantes o novedosas:

- Perspectiva de género en los presupuestos: está mejorando el trabajo con el departamento de presupuestos, y ven la necesidad de hacer los analisis presupuestarios desde la P.G.

- Ordenanza de igualdad: Irabazi presentó un modelo en el Consejo, y el departamento está trabajándolo con secretaría jurídica. Se ha incluido en la lista de propuestas normativas para 2017, por lo que la idea es este año esté aprobada. Se abre un pequeño debate en torno a si el gobierno municipal maneja 2 modelos de ordenanza de igualdad o sólo el propuesto por Irabazi, ya que así parecen haber entendido algunas concejalas en las comisiones. Desde el departamento se aclara que sólo ha habido 1 modelo.

- Se va a continuar con la formación, tanto la general, como la especializada para los departamentos, entre la que destaca la formación a la guardia municipal, formación especializada para la detección de violencia machista "implícita".Se ha elaborado un manual de trabajo donde se recogen diferentes indicadores para la detección y así poder derivar mejor los casos a Servicios Sociales.

zerbitzuetara hobeto bideratu ahal izateko.
- Lanean segitzen du gune kritikoen inguruko lantaldeak.

- Indarkeria matxista prebenitzearen bidetik, indartu egin dira autobabes lantegiak, eskaera handia zegoela ikusita.

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko udal protokoloa eskuragarri egiteko lanean ari dira Normalizazioan, 100 orri baino gehiagoko dokumentua delako, eta aplikazio batera sartzen ari dira, erabiltzaileek eskuragarriago izateko. Epea beteko dutelakoan eta maiatzean euskaragarri egongo delakoan daude.

EH Bilduren ordezkariak galdetu du ea zein atalek ordaintzen dituen Udaltzaingoarentzako prestakuntza ekintzak, eta, erantzun diotenez, oraingoz, Berdintasun Bulegoak ordaintzen ditu.

Arratsen ordezkariak aipatu duenaren arabera, Gizarte Ekintzako Kontseiluan esan zuten zaintzaren inguruko lantalde bat sortuko dutela, eta atalen arteko koordinazioa eskatu du. Berdintasuneko teknikariak ez du eskura informazio hori, baina eskuratu egingo du.

Arratsen ordezkariak itaun egin du ea biktimez arduratzen den bulegora heltzen ote diren heldu beharreko kasu guztiak, eta horren gaineko prestakuntza eskatu du gizarte langileentzat. Arratsek aholkularitza juridikoa eskaintzen die horrelako kasuei, eta galdetu du ea zergatik bidaltzen dizkieten zenbait udalerrik kasu asko eta Donostiak ez. Berdintasuneko teknikariak galdera bidaliko dio gai horren ardura duen lankideari eta, batera, informazioa partekatuko du kasuak aztertzeko taldean, horretako partaide baita beste gizarte langile batzuekin.

Elkarturen ordezkariak galdetu du ikastetxeetarako neurriei buruz, eta, indarkeriaren inguruko batzordearen kide moduan, argibideak eskatu ditu

- El grupo de trabajo de puntos críticos continúa su trabajo.

- En la linea de prevención de violencia machista se han reforzado los talleres de autodefensa, porque se ha visto que había una gran demanda.

- "Protocolo Municipal de Intervención con Mujeres Victimas de Violencia Machista"; en normalización están trabajando para hacerlo accesible, ya que es un documento de más de 100 páginas, y se está volcando en un aplicativo para que sea accesible a quienes lo vayan a usar. Se prevé cumplir el plazo dado, y que en mayo esté disponible.

La representante de EH Bildu pregunta qué departamento paga las acciones formativas con la guardia municipal, y se le responde que, de momento, el departamento de igualdad.

La representante de Arrats menciona que en el consejo de acción social se dijo que se iba a crear un grupo de trabajo sobre cuidados, y pide coordinación inter-departamental. La técnica de igualdad no tiene la información en este momento, pero lo averiguará.

La representante de Arrats pregunta si llegan a la oficina de atención a víctimas todos los casos que tienen que llegar, y pide formación con las trabajadoras sociales en este sentido. Arrats tiene un servicio de asesoramiento jurídico para estos casos, y se pregunta por qué de algunos municipios les derivan muchos casos y Donostia no. La técnica de igualdad trasmitirá también la pregunta a la compañera que se encarga del tema, y a su vez, compartirá la información en el grupo para la supervisión de casos en el que forma parte junto con trabajadoras sociales.

La representante de Elkartu pregunta por las medidas relativas a los centros escolares, y como integrante de la la comisión de violencia pide información sobre lo que se está haciendo en la educación para la prevención, pidiendo una

prebentzio hezkuntzan egiten ari direnaz, bai eta bilera bat eskatu ere eskoletan parte hartzen ari diren taldeekin. Berretsi duenez, orokorrean, udalean ez dira berdintasuna ondo lantzen ari, eta elkarteek betetzen dituzte behar asko eta asko. Emakume banandUen elkartearen ordezkariak esan dienez, kasuren bat bidali die indarkeria matxistaren biktimez arduratzen den bulegoak.

- Festak eta kultura sexista lerroan, Donostia Festakekin lan egiteaz gain, atalak nabarmendu du urteko festa guztietan indarkeria prebenitzeko kanpaina.

EH Bilduren ordezkariak deitoratu du azken urteotan jaietako kanpainaren gaineko komunikazioa eta ikusgarritasuna atzera joan direla, eta aurtengo komunikazio estrategiaz itaundu du. Berdintasuneko teknikariak esan duenez, oraindik ez dute diseinatu, baina agerikoa da komunikazioa berriro pentsatu eta hobetu beharra dagoela. Kontseiluak ekarpenik eginez gero, ongi etorri egingo diete.

- Kirolari dagokionez, *Goazen, emakumeak* proiektuarekin jarraituko dute, bai eta Emakekin lanean ere. Aurrerapausoak ikusten dira, federazioak emakume taldeak eratzen hasi direlako.

Haurralderen ordezkariak galdetu du kopa menstrualari, hilerokoari eta sexualitateari buruzko neurriaz, eta kexu agertu da emakume nagusiagoentzako neurririk ez egoteaz. Berdintasuneko teknikariak erantzun du ekintza hori 2017rako neurri jakin bat dela, aurten atalarekin negoziaturiko neurri bat. Haurralderen ordezkariak nabarmendu duenez, haren ustez Berdintasun Plan osoan ez dute neurririk proposatzen gazte ez diren emakumeentzat, eta hertsatuki eskatu du etorkizunean kontuan izateko emakume mota guztiak.

EH Bilduren ordezkariak baieztatu duenez, batzorde politikoetan behin baino gehiagotan galdetu dute Donostia

reunión con los grupos que estén interviniendo en las escuelas. Reitera que, en general, no se está trabajando bien la igualdad en el Ayuntamiento, y que hay un montón de necesidades que están cubriendo las asociaciones. La representante de la asociación de mujeres separadas comenta que desde la oficina de atención a víctimas de violencia machista se les ha llegado a derivar un caso.

- En la línea de fiestas y cultura sexista, aparte del trabajo con Donostia Festak, el departamento destaca la campaña de prevención de violencia en todas las fiestas a lo largo del año.

La representante de EH Bildu lamenta que en los últimos años la comunicación y visibilidad de la campaña de fiestas haya dado pasos atrás, y pregunta por la estrategia comunicativa de este año. La técnica de igualdad responde que aún no se ha diseñado, pero que está claro que hay que repensar y mejorar la comunicación. Si hay aportaciones desde el Consejo, serán bienvenidas.

- Respecto a Kirola, se va a dar continuidad al proyecto "Goazen, emakumeak" y trabajando con Emak. Se ven avances, como que las federaciones han comenzado a formar grupos de chicas.

La representante de Haurralde pregunta por la medida sobre la copa menstrual, la regla y la sexualidad, y se queja de que no haya acciones para mujeres de mayor edad. La técnica de igualdad responde que ésa es una acción concreta para 2017, la medida que se ha negociado para este año con el departamento. La representante de Haurralde insiste en que, a su juicio, en todo el Plan de igualdad no se propone ninguna actividad para mujeres que no sean jóvenes, y exige que se tenga en cuenta toda la diversidad de mujeres en el futuro.

La representante de EH Bildu afirma que en las comisiones políticas a menudo se ha preguntado por un plan de deporte y mujeres en Donostia Kirola, y la respuesta es que las medidas del

Kirolaren emakumeei eta kirolari buruzko plan batez, eta erantzuna da Kiroletako plan orokorreko neurriak nahiko direla. Berdintasuneko teknikariak erantzun du ataletik Kirolekin bi norabide lantzen dituztela: bat, Donostia Kirolaren plan estrategikoa, oso orokorra, non ekintzak urtez urte zehazten diren. Genero ikuspegia plan operatibo horietan bermatzea da helburua. Bestalde, emakume kirolarien Emak plataformari laguntzeko lana dago. Udalen diru laguntzen eta esku hartzeen ereduak aldatu ditu Berdintasuneko Foru Arauak; hortaz, administrazioarekin harremanetan egoten diren federazio, patronatu eta erakundeen lanean eragiten dut, eta horrek oina ematen digu aurreratzeko, eta genero ikuspegiaren araberako aldaketak eta hobekuntzak ikusten dira.

- Azkenik, garrantzitsua da atalerako ere 2017an Berdintasun Kontseilua indartzea, hortaz, ekarpenak egiteko gonbita egin du.

Proposamen zehatzak ditu Haurralderen ordezkariak: gazteak erakartzen hastea, belaunaldiak ordeztu ahal izateko, kontuan izanda horrek metodologia egokitzea eskatzen duela; ezagutzeko saioak egitea, beste elkarteak zertan diren jakin eta informazioa partekatzeko, kontseiluak partaideek ere elika ditzan; partaideen intereseko monografikoak egitea, informazioa sozializatzea.

Arratsen ordezkariak eskatu haiek kontuan izateko emakume presoekin, transexualekin, sexuko langileekin edo baztertuta dauden emakumeekin lan egiterakoan, uste baitu gauzak egiten ari direla dagoeneko lanean ari diren elkarteak kontuan zian gabe. Oroitidazki bat ere eskatzen du, Emakumearen Etxeari buruzko datu kuantitatiboak ematekoa, eta kontuan izateko Martutene ez diren espetxeetan diren emakume donostiar presoak.

Haurralderen ordezkariak dioenez, besteetan ere gertatu da hori, eta eskatzen du aktan jasotzeko

plan general de deportes son suficientes. La técnica de igualdad responde que desde el departamento se trabaja con Deportes en 2 direcciones: una es el plan estratégico de Donostia Kirola, que es muy general, y se van concretando las acciones año a año. El objetivo es es llegar a garantizar la perspectiva de género en esos planes operativos. Aparte, está el trabajo de apoyo a la plataforma de Mujeres Deportistas Emak. La Norma Foral de Igualdad modifica los modelos de subvenciones e intervenciones municipales por lo que influye en el trabajo de las federaciones, patronatos y entidades que se relacionan con la administración, esto nos da pie para avanzar y se están viendo cambios y mejoras en función de la P.G.

- Por último, es importante también para el departamento en 2017 el fortalecimiento del Consejo de Igualdad, para lo que se invita a hacer aportaciones.

La representante de Haurralde tiene propuestas concretas: empezar a traer a gente joven para que haya relevo generacional, teniendo en cuenta que eso exige adaptar la metodología; hacer sesiones para conocerse, para saber qué hacen las otras asociaciones, y compartir la información, de modo que el Consejo nutra también a las participantes; hacer monográficos que interesen a las integrantes, que se socialice información.

La representante de Arrats pide que a la hora de trabajar con mujeres presas, transexuales, trabajadoras sexuales o mujeres en exclusión se cuente con ellas, ya que considera que se están haciendo cosas sin tener en cuenta a las asociaciones que ya trabajan en ello. También pide una memoria con datos cualitativos sobre la Casa de las Mujeres, y que se tenga en cuenta a mujeres donostiarras presas en otras cárceles que no sea Martutene.

La representante de Haurralde dice que esto ya ha sucedido más veces, y pide que conste en acta que el departamento de igualdad tiene que tener en cuenta las organizaciones que están en

Berdintasun Bulegoak kontuan izan behar dituela kontseiluko kide diren elkarteak.

EH Bilduren ordezkariak dioenez, partaidetza sendotzeko, ezinbestekoa da Gobernuko emakumezko zinegotziek eragitea, eta udalak ikusgarri egin behar luke prentsa oharrak, salaketa publikoak eta abar erabilita. Azkenik, elkarteak kontuan izateko eskatzen du, ez delako aurreneko aldia atalak gauzak egiten dituena haiek kontuan izan gabe.

el Consejo.

La representante de EH Bildu dice que para fortalecer la participación, es fundamental el impulso de las concejalas del gobierno, y que el Ayuntamiento debería visibilizarlo mediante notas de prensa, denuncias públicas, etc. Por último, pide que se tenga en cuenta a las asociaciones, ya que no es la primera vez que ocurre que el departamento hace cosas sin tenerlas en cuenta.

## 4. 016 kanpaina

Emakumean Etxeak, indarkeriaren inguruko batzordearen bidez, kanpaina bat hasi zuen eskuko telefonoetatik 016 zenbakira eginiko deiak ezabatzeko. Itxuraz, aplikazio bat diseinatu dute horretarako. Batzorde honen lorpena da, Emakunderen bidez eskaera Madrilera helarazita.

EH Bilduren ordezkariak galdetu du ea emakume bananduen elkartearen ordezkaria oraindik ote den kontseiluko gestio kidetzarako ordezkaria, eta informazioa ekartzeko eskera egin diote. Gainera, lorpena ikusgarri egitera adoretzen ditu, eta kontseilukideek erantzun diote nahikoa oihartzuna izan duela hedabideetan. Galdera egin ere du egun batzuk lehenago kontseiluan parte hartzeko interesa adierazi zuen emakumeaz. Berdintasuneko teknikariak erantzun dio gaur bertan heldu dela atalera eskera, eta bideratzen ari direla.

## 4. Campaña 016

La casa de las mujeres, a través de su comisión de violencia, comenzó a hacer una campaña por el borrado de las llamadas al 016 en los móviles. Parece que ya se ha preparado una aplicación para ello. Es un logro de esta comisión, cuya petición Emakunde llevó a Madrid.

La representante de EH Bildu pregunta si la representante de la asociación de mujeres separadas sigue siendo la representante de la co-gestión en el Consejo, y se le pide que traiga la información. Anima, además, a que se visibilice ese logro, a lo que otras integrantes del Consejo responden que ha tenido bastante eco en los medios. Pregunta también por una mujer que unos días antes mostró su interés en participar en el Consejo. La técnica de igualdad responde que hoy mismo ha llegado hoy al departamento la petición, y que la están tramitando.

## 5. Hainbat

Elkarturen ordezkariak gonbit egiten die denei maiatzaren 20an Olatu Talkan parte hartzera, zenbait ekintzak eta gaik zerikusia baitute emakumearekin eta feminismoekin: emakume zientzialariak, gune kritikoen mapa, lantokiko kristalezko sabaia eta abar. Atalak, denei bidaliko die programa.

Gehituren ordezkariak ekintza proposamen bat dakar, Extremadurako

## 5. Varios

La representante de Elkartu invita a todas a participar el 20 de mayo en Olatu Talka, ya que hay varias acciones y temas relacionadas con mujeres y feminismos: mujeres científicas, mapa de puntos críticos, el techo de cristal en el trabajo, etc. Desde el departamento se reenviará el programa a todas.

La representante de Gehitu trae una propuesta de actividad que viene del consejo de

kontseilutik etorria, “besoko moreak” izenekoa: borondatezko pertsonak dira, eta jaietan indarkeria matxistaren kasuak izan daitezkeen gertaerei adi egoten dira. Aipatu dutenez, ekintza hori dagoeneko egian du mugimendu feministak , eta, zenbait herritan, hala antolaturiko brigada feministak egoten dira.

Extremadura llamada "brazaletes morados", personas voluntarias que están atentas en las fiestas para atender casos de posible violencia machista. Se menciona que es una acción que ya ha hecho el movimiento feminista, y que en algunas localidades hay brigadas feministas que están organizadas de esta manera.

Azkenik, Gehituren ordezkariak gogorarazi die maiatzaren 17an LGTB fobiaren aurkako nazioarteko eguna dela. Elkarretaratze bat antolatu dute, eta hartarako deialdia bidaliko dute, atalak denei helarazteko.

Por último la representante de Gehitu recuerda que el 17 de mayo es el día mundial contra la LGTBfobia. Van a hacer una concentración, mandarán la convocatoria y el departamento la reenviará.

Beste aztergairik ez dela, 20:15ean amaitu da bilkura.

Sin más temas que tratar, finaliza la reunión a las 20:15h.